



HAURRENTZAKO ANALGESIA AKN EGITEN DENEAN

PARAZETAMOLA:

Eskuarki, honela eskuratzen da:

- 1.- Parazetamola, tantak (100 mg = 1 ml), 15 ml-ko ontzian
- 2.- Parazetamola, ahoz hartzeko soluzioa (100 mg = 1 ml), 30 ml-ko ontzian

Dosiak: 15 mg/kg/6 h

Pisua (kg)	Tantak (1 ml = 100 mg)	Soluzioa (1 ml = 100 mg)
4	0,6 ml/6 h	
6	0,9 ml/6 h	
8	1,2 ml/6 h	
10	1,5 ml/6 h	
12	1,8 ml/6 h	
14	2,1 ml/6 h	
16	2,4 ml/6 h	
18	2,7 ml/6 h	
20		3,0 ml/6 h
22		3,3 ml/6 h
24		3,6 ml/6 h
26		3,9 ml/6 h
28		4,2 ml/6 h
30		4,5 ml/6 h

30 kg-tik gora, 500 mg-ko parazetamol-konprimituak hartzeko aukera dago.

IBUPROFENOA:

Eskuarki, honela eskuratzen da:

- 1.- Ibuprofenoa, ahoz hartzeko soluzioa, % 2 (5 ml = 100 mg)
- 2.- Ibuprofenoa, ahoz hartzeko soluzioa, % 4 (5 ml = 100 mg)

Dosiak: 25-40 mg/kg/egun; dosietan banatu behar da, eta 6 orduan behin har daiteke.

Pisua (kg)	Susp. % 2 (5 ml = 100 mg)	Susp. % 4 (5 ml = 200 mg)
8	2,5 ml/6 h	
10	3,5 ml/6 h	
12	4,0 ml/6 h	
14	4,5 ml/6 h	
16	5,0 ml/6 h	
18	6,0 ml/6 h	
20	6,5 ml/6 h	
22	7,0 ml/6 h	
24	8,0 ml/6 h	
26	8,5 ml/6 h	
28	9,0 ml/6 h	

30-40 kg artean, Ibuprofeno 400 hartzeko aukera dago, zorrotzoetan datorrena.

40 kg-tik gora, helduen dosiak hartzeko aukera dago.

METAMIZOLA:

Ahoz hartzen da. METALGIAL® tantak (1 ml = 500 mg; tanta bat = 25 mg)

Dosiak: 25 mg/kg/6 h

Pisua (kg)	Tantak (1 ml = 500 mg)
8	0,4 ml/6 h
10	0,5 ml/6 h
12	0,6 ml/6 h
14	0,7 ml/6 h
16	0,8 ml/6 h
18	0,9 ml/6 h
20-25	1,2 ml/6 h
26-29	1,4 ml/6 h
30-34	1,6 ml/6 h
35 edo gehiago	1,9 ml/6 h

Adibidea:



Parazetamola
9etan



Ibuprofenoa
12etan



Parazetamola
15etan



Ibuprofenoa
18etan



Parazetamola
21etan



Ibuprofenoa
24etan

JARRAIBIDEAK

OSO MIN ARINA:

Ohiko analgesikoa (parazetamola edo ibuprofenoa), mina badu.

MIN ARINA:

Ohiko analgesikoa (parazetamola edo ibuprofenoa), 6 orduan behin lehen egunean; ordutik aurrera, mina badu soilik.

MIN ERTAINA:

Ohiko analgesikoa (parazetamola edo ibuprofenoa), 6 orduan behin lehen bi egunetan; ordutik aurrera, mina badu soilik.

Mina izaten jarraitzen badu, ibuprofenoa edo parazetamola ere har dezake, honela: analgesiari parazetamolarekin ekin badio, tartean ibuprofenoa har dezake (edo alderantziz). Haien artean, 3 orduko tarte utzi behar da.

Medikamentu horietako bat onartzen ez badu, METALGIAL® erabiliko da. Goian adierazitako moduan txandakatuko da.

MIN HANDIA:

1. AUKERA:

- Tarteka, ibuprofenoa eta parazetamola 6 orduan behin, 2 egun, arestian adierazi den bezala.
- Ondoren, medikamentu horietako bakar bat, 4 egun gehiago.
- Lehen egunean, medikamentu horietako bat hartu eta ordubete geroago mina arindu ez bada, METALGIAL® hartuko du erreskaterako.

2. AUKERA:

- Ohiko farmakoren bat onartzen ez badu (parazetamola edo ibuprofenoa), onartzen duena hartuko du 6 orduan behin, baita METALGIAL® ere 6 orduan behin, 2 egun. Adierazi den moduan txandakatuko dira.
- Ondoren, ohiko farmakoa hartuko du, 4 egun gehiago.

Noiz berrikusia: 2017ko azarora

IO-PEDIATRIA-02

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu artatzen zaituzten profesionali.